

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN


Unibertsitatez Kanpoko Tituluen Kudeaketa

-Oinarrizko gidaliburua ikastetxeentzat-



1. W21 APLIKAZIOAN TITULU ORIGINALAK nola eskatu?

1. FASEA. Eskakerak egin eta ORDAINKETA-GUTUNA sortu.

ESKUZ	ESKAEREN SORRERA AUTOMATIKOAREN BITARTEZ
<ul style="list-style-type: none"> • ESKAERAK erlaitzean, <i>“Eskaeren kudeaketa”</i> aukeratu eta <i>“Berria”</i> botoia sakatu. • “ESKAERA BATEN XEHETASUNAK” pantailan eremuak osatu. <p>*****“Lupa” ikonoa,  pertsonak topatzeko aukera ematen duen bilatzaile bat da eta datu-sarrera errazten du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzekotan, Pertsonen Bilatzailea pantailan, <i>daturen bat sartu eta bilatu.</i> • Pertsona hautatu eta <i>“aukeratu”</i> lotura sakatu. • “Eskaera baten xehetasunak” atalean, <i>“Gorde”</i> botoia sakatu. 	<p>*****Titulu eskaeren sorrera automatikoa, W21 aplikazioan erabilgarri dago 2016/2017 ikasturteko promozioetarako eta hurrengo urteetako promozioetarako.</p> <p>Lehenik eta behin, “Notak eta Faltak” aplikazioan sartutako datuen egiazkotasuna baieztatu beharko da. Ondoren, hurrengo pausoak jarraitu beharko dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Zerbitzuak / Prozesuak / “Eskaeren sorrera automatikoa” 2. Sortu beharreko eskaerak bilatu: “Titulu/Ziurtagiri eskubide bilatzailea”. 3. Eskaeren sorrera automatikoa simulatu. 4. Prozesuen bisorean, simulazioak datu guztiak dituen egiaztatu eta datu horiek zuzenak badira: 5. Sorrera automatiko erreala jaurti. 6. Zerrenda sortu den ziurtatu eta gidaliburu honetan ematen diren ondorengo argibideak jarraitu.

. TASAREN ORDAINKETA (Ordaintzeaz salbuetsita ez daudenentzat): *“Eskaera-zerrenda”* pantailan, eskaera hautatu eta *Ordainketa* lotura sakatu. Ondoren, ordainketa-gutuna inprimatu pasabidetik eta ikasleari entregatu.

Aplikazioak, ordainketa burutu denean automatikoki adieraziko du eta behin pertsonak ordainketa justifikatzen duenean, *“eskaeren zerrenda”* pantailan *“Onartu”* lotura sakatu beharko da. *Pertsona horrentzat, titulu eskaera baliozkotuta geratuko da.*

2. FASEA. Proposamenak igorri.

ESKAERAK erlaitzera itzuli, *“Proposamenen igorpena”* aukeratu, **BLOKEA** bilatu eta proposamena igorri baliozkotutako eskaerekin.

*******Blokeak automatikoki sortuko dira behin-betiko proposamena igortzean. Hori egitean, “proposamenean” egoeran geratuko dira:**



- Bloke bat “Proposamenean” egoeran egon arren, aplikazioak titulu horrentzat eskaera berriak sortzeko aukera ematen du.

- “Proposamenean” egoeran dauden aurre-eskaerak aldatzeko, blokeen mantentzetik, blokea ezabatzea beharrezkoa izango da. Ekintza honek, ez ditu aurre-eskaerak ezabatzen. Eskaerak ikastetxearen eskuetan geratzen dira banan-banan zuzendu ahal izateko eta berriro proposamena(aldaketa berriekin) igorri ahal izateko.

FROGAGIRIA. Onartutako eskaeren banakako frogagiri ofiziala ateratzeko, eskaeren zerrendan lerro bat hautatu eta “frogagiria” sakatuta deskargatu.



2. W21 APLIKAZIOAN TITULU BIKOIZTUAK nola eskatu?

1. FASEA. Eskaeren karga eta ordainketa-gutunaren sorrera.

1. **ESKAERAK** erlaitzean, *Eskaeren kudeaketa* aukeratu, *Kategoria* aukeratu, *“Bikoiztua”* hautatu eta *berria* botoia sakatu.
2. **ESKAERAREN XEHETASUNAK** pantailan, eremuak bete eta bikoiztuaren zergatia adierazi.
3. *Eskaera baten xehetasunak* pantailan, **Gorde** botoia sakatu.
4. *Eskaeren zerrendan*, eskaera hautatu eta **ordainketa lotura** sakatu. Ondoren, bikoiztuentzat pasabidetik **ordainketa-gutuna** inprimatu eta ikasleari entregatu.
5. Aplikazioak, automatikoki adieraziko du ordainketa burutu den edo ez. Eskaeren zerrendan berriro sartu eta *“onartu” sakatu baliozkotu nahi diren eskaeretan*.

2. FASEA. Bikoiztuen akta.

Eskaerak/Bikoiztuen akta/Bilatzailea lerroa hautatu eta **akta sortu/inprimatu** lotura sakatu.

FROGAGIRIA. Onartutako eskaeren banakako frogagiri ofiziala ateratzeko, eskaeren zerrendan lerro bat hautatu eta “frogagiria” sakatuta deskargatu.

OHARRAK:

1. Arrazoi desberdinak konbina daitezke proposamen bakar baterako. Aukeratu beharreko bikoiztuaren zergatia “galtzea” izango da parte hartzen duten zergatien artean bat hori denean.
2. Tituluen bidaltzeagatik tasen ordainketan salbuespenak eta hobariak:
 - a. Aurrekontuen Legean aurreikusitakoak
 - b. DBHn graduatuak
 - c. Akatsen zuzenketagatik administrazioari egozteko bikoiztuak
 - d. Sexu aldaketagatik bikoiztuak

A, c eta d kasuak ikasleak behar bezala egiaztatu beharko ditu ordainketa-gutunaren igorpena baino lehen.